

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

326/2017 Foru Agindua, abenduaren 22koa, onartzen dituen Kultura Etxeko Zerbitzuaren hirugarren adinekoen elkartegiaren arauak

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak gizarte eta kultura jardueren eta interes orokorreko jardueren programa zehatza garatzen du 55 urtetik gorako pertsonentzat, Hirugarren Adinekoen Elkartegiak izenekoa; Ignacio Aldecoa Kultura Etxeko zerbitzuan integratuta dago, eta Gasteizko kultur jarduerak zentro horretan antolatzen dira. Gainerako lurralde historikoetan, horrelako jarduerak kuadrilla eta udalekin lankidetzan antolatzen dira.

Kultura Etxeko zerbitzuaren ustez, aipatutako programaren antolaketa alderdiak arautzeko zenbait arau onartu behar dira.

Xedapen hau Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren abenduaren 17ko 320/2017 Foru Aginduaren bitartez hasi zen prestatzen, eta, ondoren, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren abenduaren 14ko 325/2017 Foru Aginduaren bitartez proiektuaren alde aurreko onarpena ezarri zen. Horrez gain, arauen eraginaren txostena eta arauen kontrol ekonomikoaren txostena egin dira, eta dagokion legezketasun kontrola aplikatu zaio.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legean, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek eta Lurralde Historikoei eman zien "haurrekiko, gazteekiko, zahartzaroarekiko, atsedean eta egurasketarekiko politika, Euskal Herri Osoaren Erakundeek alor horietan artez jardutearen kaltetan gabe". Horrez gain, 8.3.a) artikulua arabera lurralde historikoei dagokie "araudigintza, heuren berenezko zerbitzuak antolatzeko xedez".

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, gobernuen eta administrazio publikoen araugintza ahala erabiltzean aplikatu behar diren zenbait printzipio eta teknika ezarri ditu, oinarritzko arau gisa. Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak eta Administrazio Prozedura Erkidearen Oinarritzko araudiak jasotzen dituzten arautze egokiaren printzipioak betez, dekretu hau izapidetzean errespetatu egin dira beharrezko eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioak.

Beharrezko eraginkortasun printzipioei dagokienez: Hirugarren Adinekoen Elkartegiak izeneko programaren antolaketa alderdiak arautzeko beharrezkoak justifikatzen du proposatutako erregulazioa, erabiltzaileen sarbide, erabilera eta parte hartzeko baldintzak arautzeko. Proposatutako erregulazioa da aipatutakoa lortzea bermatzeko tresnarik aproposena.

Proportzionaltasunaren printzipioari dagokienez: proposatutako erregulazioak garrantzi gutxiago eskubide eta betebeharrak ematen dizkie administratuei. Helburua lortzeko ez dago eskubideak gutxiago murrizten duen beste neuririk.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokienez: proposatutako erregulazioa ez da kontraesankorra Europar Batasuneko zuzenbidearekin konparatuz gero, ezta gainerako ordenamendu juridikoarekin alderatuta ere.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez: aintzat hartu behar da aldez aurreko kontsulta publikoaren izapidea egitea ez dela beharrezkoa kasu honetan, 29/2017 Foru Dekretuko I. eranskinaren 10.a) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, antolaketa gaiak direlako. Arrazoi bera dela bide, entzunaldi eta informazio publikoko izapidea ez da beharrezkoa kasu honetan ere, 29/2017 Foru Dekretuko I. Eranskineko 13.4 artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Onartu ondoren, ALHAOn argitaratuko da ezagutzera emateko, eta bertara eta beratu prestatzeko dokumentuetara sarbidea izatea erraztuko da, gardentasunari buruzko araudiarekin bat etorritik.

Efizientziaren printzipioari dagokionez: ez du administrazio karga osagarrikerik eragingo, ezta baliabide publiko berririk ere, aplikatzeko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Kultura Etxeko zerbitzuaren Hirugarren Adinekoen Elkartegien arauak onartzea, Foru Agindu honen eranskinean jasotakoak.

Azken xedapena. Indarrean sartzea

Onartzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean foru agindu hau eta eranskina, ALHAOn edonoiz argitaratzen dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 22a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE

Eranskina

Kultura Etxeko zerbitzuaren Hirugarren Adinekoen Elkartegien arauak

1. artikulua.- Programaren helburuak

- a) Adinekoen protagonismoa eta parte hartze aktiboa sustatzea.
- b) Bizi kalitatea mantentzen eta hobetzen laguntzea, alderdi fisiko zein intelektualetan.

2. artikulua.- Jarduerak Gasteizen

Zenbait jarduera mota antolatzen dira:

- a) Hitzaldiak

Hirugarren Adinekoen Elkartegien programaren barruan egindako hitzaldiak, eta beste jarduera ludiko batzuk, adin guztietako ikusleei zabalik daude; elkartegietako txartela duten pertsonen lehentasuna izango dute.

- b) Ikastaroak eta tailerrak

- Ikastaro eta tailerretan Hirugarren Adinekoen Elkartegien txartela dutenek baino ezingo dute parte hartu.
- Ikastaroak urtero eskatuko dira, matrikula egiterakoan.
- Plaza kopurua urtero zehaztuko da, eskuragarri dagoen ekipamenduaren arabera.

- Eskera plaza kopurua gainditzen duten ikastaroetan aukera berdintasuna ahal den neurrian bermatzen duten sistemak ezarriko dira; hala, plazak zozketa bidez esleituko dira, beste faktore batzuk ere aintzat hartuz, nahiz eta konkurrenteak ez izan: adina, bertaratze erregularra, ikastaroaren iraupena, etab.

- Tailerrak puntualki antolatuko dira, eta Hirugarren Adinekoen Elkartegien txartela dutenek baino ezingo dute izena eman.

c) Bidaiak, txangoak, bisita gidatuak, etab.

- Puntualki jakinaraziko dira

- Pertsona bakoitzak bere gain hartuko ditu horietatik eratorritako gastuak

- Hirugarren Adinekoen Elkartegien txartela dutenek lehentasuna izango dute.

- Izen emateen ordena zorrotzaren arabera onartuko dira eskera.

Jarduera doakoa ez bada, izen ematea ez da behin betikotzat joko ordainketa egin arte.

Irakasleak eta hizlariak aukeratzekoan, besteak beste, parekidetasun irizpideak aintzat hartuko dira.

Halaber, landuko diren gai eta arloetan genero ikuspegia txertatzeko ahalegina egingo da.

3. artikulua.- Onartzeko betekizunak eta izena emateko epea

Onartzeko betekizunak honako hauek izango dira:

- 55 urte beteta izatea

- NANA aurkeztea

- Izena emateko inprimakia urtero betetzea eta txartela berritzea

Hirugarren Adinekoen Elkartegien txartela berritzeko eta izena emateko eskabideak ekainean zehar aurkeztuko dira, baita programatutako ikastaroetan matrikula egin ere.

Bi modutan egin ahalko da:

a) modu presentzian, jendeari arreta emateko ordutegian

b) www.araba.eus/web/aulas webgunearen bitartez

4. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak

a) Onartutako ikastaro eta tailerretan parte hartzea. Plazak pertsonalak eta besterenezinak dira.

b) Jardueri buruzko informazio argi eta zehatza jasotzea.

c) Bertan behera utzitako jardueren kasuan, ordaindutako zenbatekoa itzultzea.

d) Hirugarren Adinekoen Elkartegien funtzionamendua hobetzeko lagungarriak diren iradokizunak, proposamenak edota kritikak egitea.

e) Parte hartzeko organoen parte izatea

f) Arreta edozein hizkuntza ofizialetan jasotzea

5. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

a) Eskuragarri jarritako instalazioak, materiala eta ekipamendua ongi erabiltzea.

b) Onartua izan den tailer eta ikastaroetan bertaratzeari uko egitea aldeztu aurretik aski denboraz jakinaraztea

c) Aukeratutako jardueretan erregulartasunez parte hartzea

d) Justifikaturik gabeko absentzia %30etik gorako bada, hurrengo ikasturtean galdu egingo du ikastaro edo tailer horretako plaza.

e) Ikastaro edo tailerretan anomalia edo irregulartasunak antzemanaz gero, ikastaroko arduradunari jakinaraztea.

f) Jardueren hasierako eta amaierako ordutegiak errespetatzea, eta bertaratzea kontrolatzeko orriak sinatzea.

g) Zentroko eremu komun eta pasabideetan isiltasuna mantentzea.

h) Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen erabilera arauak betetzea. Kultura Etxeko langile, kolaboratzaile edo erabiltzaileak errespeturik gabe edo modu desegokian tratatuz gero, erabiltzaile izaera galduko da gehienez hamabi hilabeterako.

i) Tailer edo ikastaroetan erabilitako fotokopia, testu liburu eta suntsikorren gastuak bere gain hartzea.

j) Hala eskatzen denean, norbere burua txartelaren bidez identifikatzea.

6. artikulua.- Erabiltzaile izaeraren galera

a) Borondatez uko egiteagatik.

b) Txartela urtero ez berritzeagatik.

c) Heriotzagatik.

d) Datuak faltsutzeagatik.

e) Egoera fisiko edo psikikoa dela medio, baliabidea erabiltzea ezinezkoa denean.

7. artikulua.- Talde teknikoa

Hirugarren Adinekoen Elkartegiek erabilera arau hauetan jasotako helburuak lortzeko jarduketa oro koordinatzeko ardura duten talde teknikoak dituzte.

Taldearen funtzioak, besteak beste, honako hauek izango dira:

- Jardueren programazioa egitea
- Beharrezko ekintzak egitea, egingo diren jarduketek berrikuntza, malgutasun, parte hartze eta kalitate irizpideak izan ditzaten.
- Arabako lurralde historikoko udal, kuadrilla eta erakundeetako beste talde batzuekin kolaboratzea, aurreikusitako programazioa garatzeko.
- Datuetatik abiatuz, estatistikak egitea, adin eta sexuaren arabera banatuta.

8. artikulua.- Erabiltzaileen partaidetza

Ikastaro edo tailerretan parte hartzen duten erabiltzaileek jarduera horien funtzionamendu eta hobekuntzan parte hartze aktiboa izateko eskubidea izango dute. Horretarako, talde bakoitzeko ordezkari titular bat eta ordezkaria aukeratuko dituzte, Kultura Etxeko talde teknikoari edozein unetan kexak eta iradokizunak helarazteko. Talde teknikoek eskaera horiei erantzuteko konpromisoa izango dute.

Taldeetako ordezkariak ikasturte bakoitzean aukeratuko dira. Ikasleen ordezkariak Ordezkarien Batzordea osatuko dute.

Batzordean ikastaroetako ordezkarien artean gehienez 15 pertsona izango dira. Ahalegina egingo da batzorde honen ordezkartzan emakumeen eta gizonen presentzia parekidea izan dadin.

Batzordea talde teknikoarekin bilduko da gutxienez ikasturte bakoitzaren hasieran eta amaieran. Bilera horietan antolaketa eta funtzionamendu gaiak landuko dira, programaren funtzionamendua hobetu eta ikasleen beharrianetara egokitzeko.

9. artikulua.- Jarduerak Arabako Lurralde Historikoan

Tokiko erakunde, kuadrilla eta udalekin lankidetzan, hainbat jarduera antolatzen dira:

- a) Hitzaldiak
- b) Tailerrak
- c) Bidaiak, txangoak, bisita gidatuak, etab.

Urtero, jardueren proposamena jasoko duten dosierrak igorriko zaizkie Hirugarren Adin-ekoen Elkartegiaren programan interesa daukaten erakundeetako teknikariei edo kultura arduradunei.

Herritar kopuruaren eta azpiegiturei dagokienez udalerrien inguruabarren arabera, kasuan kasuko tailer eta hitzaldien zikloak kultura arduradunekin lankidetzan antolatuko dira; aipatutako arduradunak ekintzaren hedapenaz, lokal egokia emateaz, beharrezkoa bada garraioa koordinatzeaz eta jarduerak ebaluatzeaz arduratuko dira.

7. artikuluan aipatutako talde teknikoa programak koordinatzeaz, hizlarien gastuak ordaintzeaz eta kultura arduradunen eskaerak erantzuteaz arduratuko da.